AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5766

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 28koa, Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearena, 22147 zenbaki profesionala duen praktiketako agentea Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente modura karrerako funtzionario izendatzeari buruzko 2012ko azaroaren 23ko Ebazpena, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitaratu den data jakinarazten duena.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2009ko uztailaren 30eko Ebazpenaren bitartez, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategorian sartzeko hautaketa-prozedurarako deia egin zen (irailaren 4ko EHAA, 170. zk.). Ebazpen horren hogeigarren oinarriarekin bat etorriz, eta abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuaren 12. artikuluak ematen dizkidan eskumenak direla bide, ondoko hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2012ko azaroaren 23ko Ebazpena Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean 2012ko azaroaren 27an argitaratu dela jakinaraztea. Ebazpen horren bitartez, 22147 zenbaki profesionala duen praktiketako agentea Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente modura karrerako funtzionario izendatzen da.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hala ezarririk baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. eta 114. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 28a.

Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea,
NÉLIDA SANTOS DÍAZ.